

ORBEL JOKOAK 2025- MITOAROAREN INGURUKO GALDERAK

- 1.- Pello Reparazek elkarrizketa batean honakoa aipatu zuen: “Artista batek behar du bizi duen egoera, bizi duen unea, bere artera transladatzea”. Noren hitzak direla aipatzen du? **Nina Simone-renak.**
- 2.- Abenduan aterako duen abesti berria, noiztik du buruan Pello Reparazek? **13-14 urterekin hasi zen kantu horrekin pentsatzen.**
- 3.- Mitoaroa III ikuskizuna prestatzen dabil orain Pello Reparaz. Zein liburutan oinarrituko da hirugarren ikuskizun hori? **George Orwell-en “1984” liburuan.**
- 4.- Mitoaroa III etorkizun distopiko batean kokatuko dute, baina zehazki zein urtetan? **2084. urtean.**
- 5.- Mitoaroa I eta Mitoaroa II zein garaitan kokatu zituzten? **Mitoaroa I 2025ean eta Mitoaroa II XV. Mendean.**
- 6.- Pello Reparazek zergatik uste du Mitoaroa soilik euskaraz egin daitekeen ikuskizuna dela? **Gure iruditeriaren, mitologiaren eta hizkuntza ez hegemonikoen defentsan egiten delako, eta beraz, beste hizkuntza batean egiteak ez lukeelako zentzurik izango.**
- 7.- Zein aurrekontu izan zuten Mitoaroa II-n erabili zituzten kaskoak alokatzeko? **140.000€ inguru.**
- 8.- Zergatik ez zuten jo “Zoriontasuna” abestia Illunben egin zuten Mitoaroa II ikuskizunean? **Oso zinikoa iruditzen zitzaion Pello Reparazi Palestinan genozidioa bat gertatzen ari zen bitartean, zoriontasuna aldarrikatzea.**
- 9.- Nafarroa Arenan egin zen Mitoaroa I ikuskizunean, non abestu zuen Pello Reparazek “Zu” abestia? **Kristalezko kutxa batean sartuta, uretan.**
- 10.- Zergatik erabaki zuten Mitoaroa II kaskoekin egitea? **Batetik, Zetaken idiosinkrasiarekin bat datorrelako, hau da, zerbait berria eta desberdina delako. Bestetik, Illunbe plaza zaila delako sonorizatzeko. Gainera, Iruñan egin zuten Mitoaroa I ikuskizunetik aldentzen ere laguntzen zien. Azkenin, Illunbekoa Iruñakoa baino serioagoa, politikoagoa eta introspektiboagoa zenez, hausnarketa gehiago eskatzen zuten Illunbekoak. Kaskoek aislatu egiten zaituzte ingurutik, baina horrek obran zentratzen laguntzen zuen.**
- 11.- Zein abesti abesten hasi zuen Pello Reparazek Mitoaroa II ikuskizuna? **“Errepidean” abestiarekin.**
- 12.- Mitoaroa II ikuskizunean hainbat gonbidatu izan zituen Zetak-ek. Horien artean zegoen Ignatius Farray. Zein esaldi esan zuen euskaraz ikuskizunean Ignatius-ek? **“Bizitzak izorratzen dik bizitza!”.**
- 13.- Mitoaroa I ikuskizuna 6 ataletan banatuta zegoen, sarrera eta 5 kapitulu, hain zuzen ere. Zein dira 6 atal horien izenak:
 1. Sarrera: itzaleko deia
 2. Lehen kapitulua: igarolekua
 3. Bigarren kapitulua: erbesteko biztanleak
 4. Hirugarren kapitulua: epifania
 5. Laugarren kapitulua: konkordatua
 6. Bosgarren kapitulua: bi munduren batura

14.- Eta Mitoaroa II, berriz, 7 ataletan banatuta zegoen, sarrera eta 6 kapitulu. Izendatu 7 atalak:

1. Sarrera
2. Lehen kapitulua: lurpeko haustura
3. Bigarren kapitulua: fedearen oihartzuna
4. Hirugarren kapitulua: aintzinakoen gotorlekura
5. Laugarren kapitulua: bekatu zaharren konfesorea
6. Bosgarren kapitulua: haritzen memoria
7. Seigarren kapitulua: azken setioa

15.- Nork abestu zuen bertsoa Mitoaroa I ikuskizunaren ia amaieran Nafarroa Arenan? **Jagoba Arrasatek.**